

6/25

irizpena

Landa Garapenaren Euskal Sarearen egitura,
osaera eta funtzioak ezartzen dituen
dekretu-proiektuari buruzkoa

Bilbo, 2025eko uztailaren 21a



CES
EGAB

Consejo Económico
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

Irizpena 6/25

I.- AURREKARIAK

2025eko uztailaren 2an Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Sailaren idazkia jaso zuen, *Landa Garapenaren Euskal Sarearen egitura, osaera eta funtzioak ezartzen dituen* Dekretuaren Proiektuari buruzko txostena eskatuz, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen maiatzaren 17ko 8/2012 Legearen 3.1. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz.

Hizpide dugun arauaren xedea da, 1. artikulua arabera, Landa Garapenaren Euskal Sarearen egitura, osaera eta funtzioak ezartzea, zeina Landa-ingurunearen Garapenaren ekainaren 30eko 7/2022 Legearen 16. artikuluan sortu baitzen

Jasotako dokumentuaren kopia berehala bidali zitzaien Kontseiluaren Osoko Bilkurako kide guztiei, proposamenak eta iritzia eman zitzaizkien eta horiek, aldi berean, zegoen Lan Batzordeari helaraz ziezazkieten, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Funtzionamendu Araubidean ezarritakoarekin bat etorritz.

2025eko uztailaren 14an, Ekonomia Garapenerako Batzordea bildu zen, eta, hartutako erabakietan oinarrituta, Irizpen-Proiektu hau egin zen, Batzordearen Osoko Bilkuran aztertzeko. Han gehiengoz onartu zuen.

II.- EDUKIA

Azalpen-zatia

2022ko uztailaren 15ean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen Landa-ingurunearen Garapenaren ekainaren 30eko 7/2022 Legea, xede bikoitz batekin. Alde batetik, erregulatzea EAEko landa- ingurunearen garapen jasangarriko jarduketak gidatuko dituen arau-esparrua; eta, bestetik, ezartzea Euskal Autonomia Erkidegoko landa-eremuetan politika sektorialak aplikatzean kontuan hartu beharreko gobernantza eta erakundeen arteko elkarlanerako mekanismoak.

Gobernantzari dagokionez, 16. artikulua bitartez, Landa Garapenaren Euskal Sarea sortzen da. Sarea landa- garapenean parte hartzen duten erakunde eta eragileen arteko lotura, koordinazioa eta lankidetzak sustatzeko helburuarekin sortu da. Aipatu manuaren 2. eta 3. apartatuek Sarearen osaerarekin eta funtzioekin lotutako funtsezko elementuak barnebiltzen dituzte, eta, 4. apartatuak, Sarearen egituraren, osaeraren eta funtzioen erregulamendu-garapena antolatzen du. Hori da honako dekretu honen xedea, Legean ezarritako lege-mandatuak betetzea.

Xedapen-zatia

1. Artikulua. – Xedea eta adskripzioa.
2. Artikulua. – Landa Garapenaren Euskal Sarearen izaera juridikoa eta helburua.
3. Artikulua. – Funtzioak.
4. Artikulua. – Landa Garapenaren Euskal Sarearen osaera eta funtzionamendua.
5. Artikulua. – Osoko bilkuraren funtzioak.
6. Artikulua. – Deialdia eta saioak.

- 7. Artikulua .– Bilkuren aktak.
- 8. Artikulua . – Presidentea.
- 9. Artikulua . – Presidenteordea.
- 10. Artikulua . – Bokalak.
- 11. Artikulua . – Bokalen izendapena eta iraupena.
- 12. Artikulua .–Idazkari funtzioak beteko dituen pertsona.
- 13. Artikulua . – Ordezkoak.
- 14. Artikulua .– Bokal izaera lortzeko prozedura.
- 15. Artikulua . – Idazkaritza teknikoak.

XEDAPEN GEHIGARRI BAKARRA

3 AZKEN XEDAPENAK LEHENENGOA

III.- GOGOETA OROKORRAK

Landa Garapenari buruzko ekainaren 30eko 7/2022 Legearen xedea da EAEko landa ingurunearen garapen jasangarrirako jarduerak bideratuko dituen arau esparrua arautzea eta ezartzea, lurralde osoarekiko berdintasun maila batean posizionatu dadin, herrialdearen garapen eta kohesio ekonomikoan, sozialean eta lurraldekoan funtsezko faktore gisa. Horretarako, ezinbestekoa izango da nekazaritza, abeltzaintza eta basogintzako jarduerak kontuan hartzea. Jarduera horiek sustatzea oinarritzko tresna izango da landa-eremuko biztanleria eta lurraldea mantentzeko eta garatzeko.

Arau horrek Kontseilu honen irizpena jaso zuen,¹ eta 16. artikuluan xedatzen duenez, *“tokiko gobernantza publiko- pribatuaren barruan, Landa Garapenerako Euskal Sarea sortzen da, landa-garapenaren arloan eskumena duen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorreko sailari atxikita, landa-garapenean inplikaturako erakunde eta eragileen arteko lotura, koordinazioa eta lankidetzat bultzatzeko”*, eta sare horren egitura, osaera eta eginkizunak erregelamendu bidez garatuko dira.

“Landa Garapenaren Euskal Sarearen egitura, osaera eta funtzioak ezartzen dituen dekretu-proiektua” aurkeztu da, agindu hori betetzen duena, eta kide anitzeko organo horri izaera juridikoa ematen diona.

Aurkeztu zaigun dekretu-proiektuaren 2. artikuluan xedatzen denez, *“kontsultarako, informaziorako eta aholkularitzarako organo plurala da, eta landa-garapenean inplikaturako erakunde eta eragileen arteko lotura, koordinazioa eta lankidetzat sustatzea du helburu”*, eta hori guztia **positiboki baloratzen dugu**.

¹ Ikus Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazaetako Batzordearen [otsailaren 12ko 4/20 Irizpena](#).

IV.- ONDORIOA

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen iritziz, egokia da *“Landa Garapenaren Euskal Sarearen egitura, osaera eta funtzioak ezartzen dituen dekretu-proiektua”* izapidetzea, kontsulta-organo honek egin dituen gogoetekin.

Bilbon, 2025eko uztailaren 21ean

OE Presidentea

Javier Muñecas Herreras

Idazkari Nagusia

Izaskun Astondoa Sarria